- d. Estrategiaren berrikuspena eta nire kirol erakundearen urteko kudeaketa plana (urteko ekintza plana helburuekin)
- e. Nire kirol entitateko jarduerak, antolaketa sistema eta adierazleak identifikatzea
- f. Kudeaketa Aurreratuaren Eredua. Kasu praktiko baten ebaluazioa
- g. Merkatura orientatzea, bezeroak/kirolariak erakartzea eta fidelizatzea
- h. Pertsonen kudeaketa kirol erakundeetan: motibazioa, gogobetetzea, errekonozimendua eta barne komunikazioa
- i. Euskararen kudeaketa kirol erakundeetan (euskaraz)
- j. Diruaren kudeaketa eta beharrezko finantzaketa kontrolatzea
- k. Berrikuntza eta Gizartea (euskaraz)
- l. TAILERREN LABURPEN TAULA

4. Izen emateak

- a. 3K Programan izen ematea
- b. Tailerretan izen ematea 3K Programan parte hartu gabe

5. Esteka interesgarriak

3K PROGRAMAREN AURKEZPENA



- a. Zer da 3K Programa?
- b. Hartzaileak
- c. Funtzionamendua
- d. Erakunde parte hartzaileen kopurua
- e. Aintzatespena



a. Zer da 3K Programa?

Prestakuntza-ekintza programa bat da, hiru Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak antolatua eta diruz lagundua eta Euskalit-Kudeaketa Aurreratuak koordinatua, eta bere helburua da EAEko **kirol erakundeen kudeaketa hobetzen** laguntzea, kudeaketa aurreratuaren eredian oinarrituta.

b. Hartzailleak

Kirol federazioak, klubak eta kirol taldeak, ikastetxeak, guraso elkarteak, patronatuak eta kiroleko udal erakundeak, kirol enpresak eta instalazioak, eta bestelako edozein kirol erakunde.

c. Funtzionamendua

3 urteko programa bat da, eta xedea da erakundeek, prestakuntza saio/tailerren bitartez eta hainbat ariketa praktiko eginez, beren antolamenduan kudeaketa "aurreratuaren" funtsezko alderdiak eta praktika onak ezagutzea eta garatzea.

Prestakuntza saioak lurralde desberdinetan ematen dira (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa) eta entitate parte-hartzaileak, egiten duten tailerraren arabera, lurralde batera edo bestera mugitu behar izango dira.

d. Erakunde parte hartzaileen kopurua

2006an martxan jarri zenetik, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako 200 erakundek baino gehiagok parte hartu dute programan.

e. Aintzatespena

3K Programaren hiru urteak gainditzen dituzten Kirol erakundeek, eta Kanpo Kontraste bat egin ondoren, **Kudeaketa Aurreratuaren Diploma** lortzeko aukera izango dute; hori Eusko Jaurlaritzak Kudeaketa Aurreratuaren arloan ematen dituen sarien eskema berriko lehenengo errekonozimendua delarik. Aintzatespen hau lortzeko baldintzak hurrengoak dira: **diploma lortzeko baldintzak**.

3K Programa 3 urterako diseinatuta dago, eta urte horietan aldaketak jasan ditzake, erakunde antolatzaileek horrela erabakiz gero, programaren helburu orokorrak betetzeko eta emaitzak hobetzeko.

3K PROGRAMA 2017



■ a. Programa osoa (3 urte)

- > 1. urtea
- > 2. urtea
- > 3. urtea

■ b. Beste aukera batzuk

- > Programa 1 edo 2 urtetan egitea
- > Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortzeko zuzenean aurkeztea
- > Tailerretan izena ematea 3K Programan parte hartu gabe



a. PROGRAMA OSOA 3 URTE

2017an 3K Programaren 10. edizioa hasiko da, eta 3 urteko **egitura** honako hau izango da:

3 urteko programa	1. URTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa ereduari buruzko tailerra (2 saio) • Plan Estrategikoari buruzko tailerra (4 saio) • Erakundearen urteko kudeaketa plana (plannaren hasiera) (2 saio)
	2. URTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategiaren berrikuspena eta urteko kudeaketa plana tailerra (4 saio) • Hautazko tailer osagarri bat (1,2 edo 3 saio)
	3. URTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Antolamendu ereduari buruzko tailerra (5 saio) • Kudeaketa Aurreratuaren Eredua. Kasu praktiko baten ebaluazioa (3 saio) • Hautazko tailer osagarri bat (1,2 edo 3 saio) • Kanpo kontrastea (saio 1)

Hirugarren urtea amaitu eta gainditu eta gero, Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortzeko aukera egongo da.

Programak hiru Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza dauka. Edonola ere, hirugarren urtean, Kudeaketa Aurreratuaren Diploma eskuratzeko, erakundeek nahitaez **Euskaliteko erakunde laguntzaile** izan beharko dute. Euskaliteko laguntzailea izateak zera esan nahi du:

Urteko kuota bat ordaintzea (kirol erakundeentzat izaera murrizta dauka): **ikusi kuoten taula.**

Hainbat onura lortzea: **esteka sakatu.**



a. PROGRAMA OSOA 3 URTE

1. URTEA

> Parte hartzeko baldintzak

Eskuliburu honekin batera doan eranskinean (**1 eranskina**) zehazten da zer baldintza bete behar diren 3K programaren lehenengo urtean parte hartzeko. *Izena emateko, beharrezkoa da eranskina irakurtzea eta, baldintzak onartu ondoren, erakunde antolatzaileari (dagokion aldundia edo Eusko Jaurlaritza, kasuaren arabera) zuzen beteta bidaltzea. Eskabideak jasotzeko epea **2017ko urtarrilaren 23an** amaituko da.*

> Urtearen egitura eta edukiak

3K Programaren lehen urtean parte hartzaile berriak 8 saiotara joango dira, tailer hauetara zuzenduta:

Kudeaketa aurreratuaren ereduari buruzko tailerra

Plan estrategikoari buruzko tailerra

Nire kirol entitatearen urteko kudeaketa plana (planaren hasiera)

> 1. urtea gainditzeko baldintzak

- Lehen deskribatutako derrigorrezko hiru tailerrak egin eta gainditzea. Tailer horiek gainditzeko:
 - Tailer bakoitzeko %80ko asistentzia
 - Tailer bakoitzean agindutako zereginak adierazitako epeetan egitea. Zereginak:
 - Entitatearen autoebaluazioa egitea Kudeaketa Aurreratuaren Eredua kontutan hartuz
 - Laneko barne egitura zehaztea urteko egutegiarekin
 - Planifikazio estrategikoa definitzea entitatearen ondorengoak kontutan hartuz: Xedea, Ikuskera eta Balioak, AMIA, epe luze-ertainerako helburu estrategikoak definituz eta adierazle estrategikoak identifikatuz.
 - Urteko kudeaketa plana garatzea entitatearen estrategiarekin koherentzia jarraituta.



- **Erakundearen arduraduna Kudeaketa Aurreratuaren Ereduari buruzko tailerraren lehenengo saiora eta Plan Estrategikoari buruzko tailerraren azken saiora joatea** (baldin eta saioetara joaten den pertsona ez bada).
- Erakundearen arduradunaren lidergoaren bitartez, 3K Programan kudeaketarako garatzen diren tresnak partekatzea eta aplikatzea, barruko lantalde baten bitartez.

> Aprobetxamendu Ziurtagiria

Lehenengo urtea gainditzen duten erakundeek aprobetxamendua egiaztatzeko ziurtagiri bat deskargatu ahal izango dute, prestakuntza jasotzen duena, eta aukera izango dute programaren 2. urtea egiteko.



a. PROGRAMA OSOA 3 URTE

2. URTEA

> Parte hartzeko baldintzak:

Eskuliburu honekin batera doan eranskinean (**2 eranskina**) zehazten da zer baldintza bete behar diren 3K programaren bigarren urtean parte hartzeko. *Izena emateko, beharrezkoa da eranskina irakurtzea eta, baldintzak onartu ondoren, erakunde antolatzaileari (dagokion aldundia edo Eusko Jaurlaritzza, kasuaren arabera) zuzen beteta bidaltzea. Dokumentua bidaltzeko eta tailerretan izena emateko azken eguna **2017ko urtarrilaren 13a** izango da.*

> Urteko egitura eta edukiak:

- **2016 urtean 3K programaren lehenengo urtearekin bere konpromisoa erakutsi duten erakundeak gonbidatuko dira.** Lehenengo urtea gainditu ez dutenei, posible izanez gero, 2017 urtean hasiko den talde berrian parte hartzera gonbidatuko zaie.
- **2 tailer egingo dira (gutxienez), bat derrigorrezkoa eta bestea osagarrien artean hautatzekoa:**

- Derrigorrezko tailerra:

Estrategiaren berrikuspena eta nire kirol erakundearen urteko kudeaketa plana (urteko ekintza plana, helburuekin)

- **Tailer osagarriak:** gainerako tailerrak dira. Gutxienez hautazko tailer horietatik bat hautatu behar da, eta gehienez 2 egin ahal izango dira. Erakunde batek hirugarren tailer bat egin nahi izango balu Euskalitekin zuzenean kontaktuan jarri beharko da ondorengo posta elektronikoa erabiliz nfernandez@euskalit.net.

Tailer hauek aukeratzekoan kontutan hartu ahal izango da: erakundeak lantzeko lehentasunezko zatituen hobekuntza arloak, errealistak izatea eta baloratzea ea tailer bat edo beste bat egitea bideragarria den erakundearen baliabideen, pertsonen eta egoeraren arabera, erakundeak Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortu nahi badu aztertzea zein baldintza betetzen diren eta zein ez.

Merkatura orientatzea, bezeroak/kirolariak erakartzea eta fidelizatzea

Pertsonen kudeaketa kirol erakundeetan: motibazioa, gogobetetasuna, aintzatespena eta barne-komunikazioa.

Euskararen kudeaketa kirol erakundeetan (euskeraz)

Berrikuntza eta Gizartea (euskaraz)



Diruaren kudeaketa kirol erakundeetan: diruzaintzaren eta beharrezko finantzaketaren kontrola.

- 2017. urteari dagokion **autoebaluazioa** egin beharko da. Horretarako, erakunde parte hartzailea aurreko urtean egindakoa oinarritu ahal izango da.

> 2. urtea gainditzeko baldintzak

- Derrigorrezko tailerra eta gutxienez tailer osagarri bat (erakundeak hautatutakoa) egitea eta gainditzea. Tailer horiek gainditzeko:
 - Tailer bakoitzeko %80ko asistentzia
 - Tailer bakoitzean agindutako zereginak adierazitako epeetan egitea:
 - 2016an zehaztutako laneko barne egiturarekin lanean jarraitzea.
 - Plan Estrategikoa osatu eta urteko kudeaketa plana zehaztu aurrekoarekin koherentzia mantenduz.
 - Urteko Kudeaketa Planaren tailerrean definitutako ekintza edo egitekoak abiaraztea. Aipaturiko zereginen doikuntza eta berrikustea egiten dela ikusteko urrian azken saio bat egingo da, bertan erakundearen arduradunak praktikara nola eramaten ari diren azaldu behar izango duelarik.
 - Autoebaluazioa eguneratu.
- Erakundearen arduradunaren lidergoaren bitartez, 3K Programan kudeaketarako garatzen diren tresnak partekatzea eta aplikatzea, barruko lantalde baten bitartez.
- **Erakundearen arduraduna derrigorrezko tailerraren azken saiora joatea eta erakundearen egindakoa azaltzea.**
- 2017. urtea eta hautatutako tailerrak amaitzean, **autoebaluazioa** egin beharko da, horretarako Kudeaketaren Aurreratuaren Eredua erreferentzia bezala hartuko delarik, eta **Euskalitera bidali** beharko da, **2017ko azaroaren 6a baino lehen**.

> Aprobetxamendu Ziurtagiria

Erakundeek beren tailerrak gainditzeko dituztenean prestakuntzaren aprobetxamenduaren ziurtagiria deskargatu ahal izango dute.

3K Programako 2. urteko baldintzak gainditzeak esan nahi du erakundeak 3. urtean sartzeko aukera izango duela.



a. PROGRAMA OSOA 3 URTE

3. URTEA

> Parte hartzeko baldintzak

3K Programaren hirugarren urtean parte hartzeko baldintzak eskuliburu honekin batera datorren 3. eranskinean zehaztuta daude. Izena emateko, beharrezkoa da eranskina irakurtzea eta, baldintzak onartu ondoren, **dagokion Aldundiari edo Eusko Jaurlaritzari, kasuaren arabera, sinatuta bidaltzea. Dokumentua bidaltzeko eta tailerretan izena emateko azken eguna 2017ko urtarrilaren 13a izango da.**

> Urtearen egitura eta edukiak

- **2016 urtean 3K programaren bigarren urtearekin bere konpromisoa erakutsi duten erakundeak gonbidatuko dira.** 2. urtea gainditu ez duten erakundeei, lekua egonez gero, 2017ko 2. urterako tailerren eskaintzan izena emateko aukera eskainiko zaie.
- Tailerretan izena eman ahal izateko, erakundea derrigor **Euskaliteko laguntzailea** egin beharko da. EUSKALITeko laguntzailea izateko sakatu hemen eta bete formularioa zure erakundearen datuekin. Formularioan erakunde mota bakoitzari dagozkion urteko kuoten taula eta lortzen diren onurak ikusi ahal izango dituzu.
- **Guztira 4 jarduera egingo dira (gutxienez): 3 tailer, bi derrigorrezkoak eta bat osagarrien artean hautatzekoa, eta kanpo kontraste bat:**
 - **Derrigorrezko tailerrak:** derrigor hartu behar dira. Hauek dira:
 - Nire kirol erakundeko jarduerak, antolaketa sistema eta adierazleak identifikatzea
 - Kudeaketa Aurreratuaren Eredua. Kasu praktiko baten ebaluazioa
 - **Tailer osagarriak:** gainerako tailerrak dira. Gutxienez hautazko tailer horietatik bat hautatu behar da, eta gehienez bi egin ahal izango dira. Erakunde batek hirugarren tailer bat egin nahi izango balu Euskalitekin zuzenean kontaktuan jarri beharko da ondorengo posta elektronikoa erabiliz nfernandez@euskalit.net.

Tailerrak hautatzeko orduan kontuan hartu ahal izango da: erakundeak lantzeko lehentasunezko zatituen hobekuntza arloak, errealistak izatea eta baloratzea ea tailer bat edo beste bat egitea bideragarria den erakundearen baliabideen, pertsonen eta egoeraren arabera, erakundeak Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortu nahi badu aztertzea zein baldintza betetzen diren eta zein ez.



- **Tailer osagarriak hauek dira:**

- Merkatura orientatzea, bezeroak/kirolariak erakartzea eta fidelizatzea
- Pertsonen kudeaketa kirol erakundeetan: motibazioa, gogobetetasuna, aintzatespena eta barne-komunikazioa.
- Euskararen kudeaketa kirol erakundeetan (euskeraz)
- Berrikuntza eta Gizartea (euskeraz)
- Diruaren kudeaketa kirol erakundeetan: diruzaintzaren eta beharrezko finantzaketaren kontrola.

● **Kanpo kontrastea:**

- 2017 urtean egingo da urria eta azaroa bitartean.
- Hausnarketa saio bat da, goiz batean egitekoa, erakundearen zuzendaritza taldearen eta Euskaliteko Ebaluazio Klubeko kideen artean –kudeaketa gaitan adituak–
- Zalantzak argitzeko eta erakundeari laguntzeko balio du bere kudeaketa sistema hobetzen.
- Laguntzarako zerbitzu bat da, Euskaliteko erakunde laguntzaileei baino eskaintzen ez zaiena.
- Talde ebaluatzaileak erakundearekin kontrastatuko du aurrerapen maila eta Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortzeko baldintzak betetzen diren.

> **3. urtea gainditzeko eta Kudeaketa Aurreratuarekiko konpromisoaren diploma lortzeko baldintzak:**

- Urtea gainditzeko derrigorrezko bi tailerrak egin behar dira. Asistentziako baldintzak betez, eta prestatzaileak agindutako zereginak eginez.
- Erakundearen arduraduna derrigorrezko tailerraren azken saiora joatea eta erakundearen egindakoa azaltzea.
- Gainera, **tailer osagarri** bat egin beharko da (erakundeak aukeratuko du).
- 2017. urtea amaitzean, eta aukeratutako tailerrak eginda, kanpo kontrastea egin behar da.



Kudeaketa Aurreratuaren Diploma:

3K Programako 3. urteko baldintzak betetzeak ekarriko du erakundeak aukera izango duela **Kudeaketa Aurreratuaren Diploma** lortzeko; hori Eusko Jaurlaritzak Kudeaketa Aurreratuaren arloan ematen dituen sarien eskema berriko lehenengo errekonozimendua delarik. Halere, diploma lortzearen edo ez lortzearen azken erabakia talde ebaluatzaileak hartuko du Kanpo Kontrastea egin eta gero eta **diploma lortzeko baldintzen** arabera.

> Aprobetxamendu Ziurtagiria

Erakundeek beren tailerrak gainditzen dituztenean prestakuntzaren aprobetxamenduaren ziurtagiria deskargatu ahal izango dute.



b. BESTE AUKERA BATZUK

2017an 3K Programan, edo zati batean behintzat, parte hartzeko beste aukera batzuk eskainiko dira:

> **Programa 1 edo 2 urtetan egitea**

Kirol erakunde batek denbora gutxiagoan egin lezake programa Plan Estrategiko eta Urteko Plan bat baldin baditu egin berriak (gehienez ere 2 urte lehenago), eta programa 3 urte baino gutxiagoan kontzentratuta egiteko behar besteko denbora badauka. Erakunderen batek formatu horretan parte hartzeko erabakia 3K Programaren antolatzaileek hartuko dute, hau da, 3 Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak, Euskalit-Kudeaketa Aurreratuaren laguntzarekin.

> **Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortzeko zuzenean aurkeztea**

Kudeaketa Aurreratuaren Diploma lortu ahal izateko aurrerapen maila handia duten kirol erakundeentzat aukera dago Kanpo Kontraste bat eskatzeko. Aukera horren inguruko interesa duten erakundeak zuzenean jarri daitezke harremanetan Euskalit-Kudeaketa Aurreratuarekin eta informazioa eskatu. Harremanetarako pertsona: Natalia Fernandez nfernandez@euskalit.net.

> **Tailerretan izena ematea 3K Programan parte hartu gabe**

Aukera eskaintzen da prestakuntza saio/tailerren batean parte hartzeko 3K Programan parte hartu gabe, baina saio/tailer bakoitzari dagokion kostua ordainduz (ikusi prezioen taula [hemen](#)). Aukera horretaz baliatzeko sakatu [hemen](#).

2017KO TAILERRAK



TAILER

OSAGARRIAK

1. urtea

- a. Kudeaketa aurreratuaren ereduari buruzko tailerra
- b. Plan estrategikoari buruzko tailerra
- c. Nire kirol erakundearen urteko kudeaketa plana (planaren hasiera)

2. urtea

- d. Estrategiaren berrikuspena eta nire kirol erakundearen urteko kudeaketa plana (urteko ekintza plana helburuekin)

3. urtea

- e. Nire kirol entitateko jarduerak, antolaketa sistema eta adierazleak identifikatzea
- f. Kudeaketa Aurreratuaren Eredua. Kasu praktiko baten ebalauzioa

- g. Merkatura orientatzea, bezeroak/kirolariak erakartzea eta fidelizatzea
- h. Pertsonen kudeaketa Kirol erakundeetan: motibazioa, gogobetetzea, errekonozimendua eta barne komunikazioa
- i. Euskararen kudeaketa Kirol erakundeetan (euskaraz)
- j. Diruaren kudeaketa eta beharrezko finantzaketa kontrolatzea
- k. Berrikuntza eta Gizartea (euskaraz)

■ I. TAILERREN LABURPEN TAULA



a. KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUARI BURUZKO TAILERRA

(1. urteko erakundeek NAHITAEZ EGIN BEHARREKO TAILERRA)

- **Egitura:** 2 saio
- **Irakaslea:** Daniel Ortega
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**

1. saioa:

- Bertaratutakoak Kudeaketa Aurreratuaren Ereduen inguruan prestatzea eta sentsibilizatzea.
- Autoebaluazioa egitea Kudeaketa Aurreratuaren Ereduen arabera. Etorkizunean landu beharreko elementu bakoitzeko ekintza bat identifikatuz.

2. saioa:

- Barne antolaketa lantzea: taldea sortu, bileren egitura eta egutegia zehaztu; baita bileren metodologia eta ezagutza sozializatu ere. Saio honetan, erakunde parte hartzaileek beren organigrama zehaztu beharko dute, eta bertan azaldu beharko dute non kokatzen duten sortu den 3K taldea.
- Ezagutzak bereganatu eta behar diren trebetasunak eta jarrerak landu, barne bileretan parte hartzea dinamizatu eta sustatzeko.

• **Edukia:**

- Kudeaketa aurreratuari buruzko oinarriko kontzeptuak.
- Kudeaketa aurreratuaren elementuak:

Estrategia

Bezeroak

Pertsonak

Gizartea

Berrikuntza

Emaitzak

- Autoebaluazioaren bidez, kudeaketan izandako aurrerapen maila ebaluatzea.
- Hainbat tresna: nola planifikatu eta dinamizatu bilerak; bileretan parte hartzea eta ideien sorkuntza sustatzea; ikuspegia doitu eta ebaluatu...



• **Zereginak:**

- Kudeaketa Aurreratuaren Eredua erabiliz, erakundearen autoebaluazioa egitea eta egin beharreko ekintza bat identifikatzea elementu bakoitzeko.
- Talde bat sortu eta talde horren lan egitura zehaztea (nortzuek osatzen duten, zenbatetik behin bilduko diren...), erakundearen organigramarekin batera.
- "Txoko" web tresnan, hurrengo bilera egin baino astebete lehenago eskegitzea zereginak.

• **Datak, ordutegia eta lekua:** taldearen arabera:

	GIPUZKOAKO TALDEA	ARABAKO TALDEA	BIZKAIKO TALDEA GOIZEZ	BIZKAIKO TALDEA ARRATSALDEZ
DATAK ETA ORDUTEGIA 1. SAIOA	Otsailak 1 (9:15-14:15)*	Otsailak 2 (9:00-14:00)*	Otsailak 3 (9:00-14:00)*	Urtarrilak 31 (16:00-21:00)*
DATAK ETA ORDUTEGIA 2. SAIOA	Martxoak 1 (9:30-13:00)	Martxoak 2 (9:30-13:00)	Martxoak 3 (9:30-13:00)	Otsailak 28 (16:00-19:30)
LEKUA**	<u>Anoetako kiroletxea</u>	<u>Mendizorro-tzako kiroletxea</u>	<u>Miribillako kiroletxea</u>	<u>Miribillako kiroletxea</u>

* Erakundeko arduradunak lehen saiora agertu beharko du.

**Parte hartzen duen erakunde batek ezin badu bere taldeari dagokion datan bertan egon, beste talde batera joan ahal izango da.



b. PLAN ESTRATEGIKOARI BURUZKO TAILERRA

(1. urteko erakundeek NAHITAEZ EGIN BEHARREKO TAILERRA)

- **Egitura:** 4 saio
- **Irakaslea:** Daniel Ortega
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Bertaratzen direnak beren erakundearen plan estrategikoaren lanketan trebatuko dira.
- **Edukia:**
 - Erakundearen elementuak zehazteko jarraibideak: Misioa, Ikuskera eta Balioak, AMIA analisi bat egiteko.
 - Erakundearen uneko egoera eta testuingurua kontuan hartuz, misioarekin, ikuskerarekin eta balioekin bat etorriko diren helburu estrategikoak identifikatzea. Kontuan hartuko dira Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren elementuak.
 - Planari jarraipena egiteko koadroa (adierazle garrantzitsuak, ekintzak, arduradunak, aldizkakotasuna...).
- **Zereginak:**
 - Misioa, ikuskera eta balioak zehaztea.
 - AMIA analisia eta Interes Taldeen Beharren Mapa lantzea.
 - Helburu estrategikoak edota arrakasta faktore kritikoak deskribatzea.
 - Helmugak eta adierazle estrategikoak lantzea.
- **Datak, ordutegia eta lekua:**

	GIPUZKOAKO TALDEA	ARABAKO TALDEA	BIZKAIKO TALDEA GOIZEZ	BIZKAIKO TALDEA ARRATSALDEZ
DATAK ETA ORDUTEGIA 1. SAIOA	Apirilak 5 (9:30-13:00)	Apirilak 6 (9:30-13:00)	Apirilak 7 (9:30-13:00)	Apirilak 4 (16:00-19:30)
DATAK ETA ORDUTEGIA 2. SAIOA	Maiatzak 3 (9:30-13:00)	Maiatzak 4 (9:30-13:00)	Maiatzak 5 (9:30-13:00)	Maiatzak 2 (16:00-19:30)
DATAK ETA ORDUTEGIA 3. SAIOA	Maiatzak 24 (9:30-13:00)	Maiatzak 25 (9:30-13:00)	Maiatzak 26 (9:30-13:00)	Maiatzak 23 (16:00-19:30)
DATAK ETA ORDUTEGIA 4. SAIOA	Ekainak 14 (9:30-13:00)*	Ekainak 15 (9:30-13:00)*	Ekainak 16 (9:30-13:00)*	Ekainak 13 (16:00-19:30)*
LEKUA**	<u>Anoetako kiroletxea</u>	<u>Mendizorroztako kiroletxea</u>	<u>Miribillako kiroletxea</u>	<u>Miribillako kiroletxea</u>

* Erakundeko arduradunak azken saiora agertu beharko du.

**Parte hartzen duen erakunde batek ezin badu bere taldeari dagokion datan bertan egon, beste talde batera joan ahal izango da.



C. NIRE KIROL ERAKUNDEAREN URTEKO KUDEAKETA PLANA (planaren hasiera)

(1. urteko erakundeek NAHITAEZ EGIN BEHARREKO TAILERRA)

- **Egitura:** 2 saio
- **Irakaslea:** Isabel Fernandez
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Bertaratutakoei, urteko kudeaketa plan baten bidez, beren estrategia hedatzeko behar diren tresnak ematea eta horretarako trebetasunak lantzen laguntzea.
- **Edukia:**
 - Aurreko tailerrean landutakotik abiatuz, helburuen hedapena egiten da urteko Kudeaketa Planeko ekintzetan.
- **Tailerra hasi aurretiko zereginak:**
 - Aurreko tailerrean landutako dokumentazioa "Txoko" web tresnara igo behar da tailerra hasi baino astebete lehenago, eta saiora eraman.
- **Zereginak:**
 - Urteko kudeaketa plana lantzea, erakundearen estrategiarekin bat eginez eta urtean egin beharreko ekintzak jasota.
- **Datak, ordutegia eta lekua:** taldearen arabera:

	GIPUZKOAKO TALDEA	ARABAKO TALDEA	BIZKAIKO TALDEA GOIZEZ	BIZKAIKO TALDEA ARRATSALDEZ
DATAK ETA ORDUTEGIA 1. SAIOA	Irailak 27 (9:30-13:30)	Irailak 28 (9:00-13:00)	Irailak 29 (9:00-13:00)	Irailak 25 (16:00-20:00)
DATAK ETA ORDUTEGIA 2. SAIOA	Urriak 25 (9:30-13:30)	Urriak 26 (9:00-13:00)	Urriak 27 (9:00-13:00)	Urriak 23 (16:00-20:00)
LEKUA**	<u>Anoetako kiroletxea</u>	<u>Mendizorroztako kiroletxea</u>	<u>Miribillako kiroletxea</u>	<u>Miribillako kiroletxea</u>

**Parte hartzen duen erakunde batek ezin badu bere taldeari dagokion datan bertan egon, beste talde batera joan ahal izango da.



d. ESTRATEGIAREN BERRIKUSPENA ETA NIRE KIROL ERAKUNDEAREN URTEKO KUDEAKETA PLANA (URTEKO EKINTZA PLANA, HELBURUEKIN) (2 deialdi)

(2. urteko erakundeek NAHITAEZ EGIN BEHARREKO TAILERRA)

- **Egitura:** 4 saio
- **Irakaslea:** Isabel Fernandez
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Bertaratutakoei, urteko kudeaketa plan baten bidez, adierazle koadro bat hedatzeko behar diren tresnak ematea eta horretarako trebetasunak lantzen laguntzea.
- **Edukia:**
 - Abiapuntua, 1. urtean landutakoa berrikustea izango da: erakundearen uneko egoera eta testuingurua kontuan hartuz, misioarekin, ikuskerarekin eta balioekin bat etorriko diren helburu estrategikoak aginte koadro integral batean identifikatzea.
 - Urteko kudeaketa planeko ekintzetan helburuak hedatzea.
 - Helburu estrategikoei eta urteko kudeaketa planeko ekintzei jarraipena egitea, eta horiek berrikustea eta doitzea.
- **Tailerra hasi aurretiko zereginak:**
 - 1. urtean landutako dokumentazioa "Txoko" web tresnara igo behar da tailerra hasi baino astebete lehenago, eta saiora eraman.
- **Zereginak:**
 - 1. urtean egindako definizioa berrikustea, erakundearen informazioarekin eta helburu estrategikoekin.
 - Urteko kudeaketa plan bat lantzea (datu errealekin), erakundearen estrategiarekin bat eginez.
 - Erakundeko pertsonen kudeaketa plana jakinaraztea eta jarraipena egitea. Ekintzei eta urteko kudeaketa planari jarraipena egitea, eta horiek doitzea.
 - Tailer hau bukatutakoan, erakundearen 2. autoebaluzioa egitea Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera, eta "Txoko" web tresnara igotzea.



• **Datak, ordutegia eta lekua:**

	1. deialdia Miribillako Kiroletxea (Bizkaia)	2. deialdia Anoetako kiroletxea (Gipuzkoa)
DATAK ETA ORDUTEGIAK	Martxoak 14 (9:00-13:00) Apirilak 4 (9:00-13:00) Maiatzak 9 (9:00-13:00) Urriak 3* (9:00-12:00)	Martxoak 15 (9:30-13:30) Apirilak 5 (9:30-13:30) Maiatzak 10 (9:30-13:30) Urriak 4* (9:30-12:30)
LEKUA	Izen ematea: <u>sakatu hemen</u>	Izen ematea: <u>sakatu hemen</u>

* Erakundeko arduradunak tailerraren azken saiora agertu beharko du. Berrikuspena egingo da ikusteko nola landu den urteko plana eta nola lotu duten egindako tailer osagarriekin; doiketak ere egingo dira.



e. NIRE KIROL ERAKUNDEKO JARDUERAK, ANTOLAKETA SISTEMA ETA ADIERAZLEAK IDENTIFIKATZEA. (2 deialdi)

(3. urteko erakundeek NAHITAEZ EGIN BEHARREKO TAILERRA)

- **Egitura:** 5 saio
- **Irakaslea:** Isabel Fernandez
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Parte hartzaileak trebatzea, bai jarduerak/prozesuak identifikatzeko, bai prozesuen mapa bat zehazteko.
 - Nor bere erakundeko prozesu bi gutxienez kudeatzen hasia (definitu, sistematizatu, dokumentatu...) ezarritako helburuak eskuratzeko. Horretarako, arduraduna eta lantaldeak, prozesuaren helburuak, adierazleak eta dokumentazioa zehaztuko dira.
 - Prozesu taldeen eta proiektuen bidez, kudeaketa koordinatu eta eraginkorra lortzeko trebatzea parte hartzaileak.
- **Edukia:**
 - Erakundeko jarduerak identifikatu eta prozesu eta proiektu antolatzea.
 - Erantzukizunak eta lantaldeak identifikatzea.
 - Talde bakoitzarentzako adierazleak eta helburuak identifikatzea.
 - Hobera egiteko ekintzak identifikatzea eta prozesu nahiz proiektu bakoitzaren ekintza planari jarraipena egitea.
 - 3K Programan zehar zehaztutako plan, ekintza eta adierazleei jarraipena egitea, estrategikoak, bezeroenak eta pertsonenak direnak bereziki nabarmenduz.
- **Zereginak:**
 - Erakundearen egiten diren jarduerak guztiak zerrendatzea eta prozesu taldekatzea.
 - Prozesuaren mapa marraztea.
 - Erakundearen 2 prozesu dokumentatzea: horietako bat Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren prozesua izango da, eta bestea prozesu operatibo gako bat (erakundeak aukeratutako duena).
 - Prozesuaren erantzukizun banaketa eta adierazleen panela jasoko dituen koadroa betetzea.
 - Erakundearen dokumentazio guztia prozesuaren karpeta antolatzea.



• **Datak, ordutegia eta lekua:**

	1. deialdia Miribillako kiroletxea (Bizkaia)	2. deialdia Mendizorrotzako kiroletxea (Araba)
DATAK ETA ORDUTEGIAK	Martxoak 8 (9:00-13:00) Martxoak 29 (9:00-13:00) Apirilak 25 (9:00-13:00) Maiatzak 15 (9:00-13:00) Urriak 10* (9:00-13:00)	Martxoak 9 (9:00-13:00) Martxoak 30 (9:00-13:00) Apirilak 26 (9:00-13:00) Maiatzak 17 (9:00-13:00) Urriak 11* (9:00-13:00)
LEKUA	Izen ematea: sakatu hemen	Izen ematea: sakatu hemen

* Erakundeko arduradunak 3. urtearen itxiera saiora agertu beharko du 3 urteetan landutakoa biltzera eta harilkatzera, eta urteko planean nola txertatu duten azaltzera.



f. KUDEAKETA AURRERATUAREN EREDUA. KASU PRAKTIKO BATEN EBALUAZIOA (2 deialdi)

(3K Programaren barruan eta 3. urtean dauden parte hartzaileentzat bakarrik. NAHITAEZKO TAILERRA)

- **Egitura:** 3 saio
- **Irakaslea:** Aurkene Redondo
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Kudeaketa Aurreratuaren Eredua elementuak ezagutzea eta elementu horiek erreferente gisa erabiltzea bai autoebaluaziorako bai beste erakunde batzuk ebaluatzeko.
 - Moduluan parte hartzen dutenek aukera izango dute Euskalit-eko Ebaluazio Klubean sartzeko.
- **Edukia:**
 - Kudeaketa Aurreratuaren Eredua zer den azalduko da (elementuak eta azpielementuak).
 - Ebaluazio taldea zertan datzan azalduko da.
 - Parte hartzaileek, prestatzailearen laguntzarekin eta argibideekin, benetako dokumentazio bat ebaluatuko dute.
 - Azken saioan, Ebaluazio Klubari buruzko informazioa emango du EUSKALITek.
- **Tailerra hasi aurretiko zereginak:**
 - Aldez aurretik tailerrari buruzko dokumentazioa irakurri behar da, eta online test bat egin web tresnaren bidez.
- **Zereginak:**
 - Saioetan ikusitako prozedura eta jarraibideei segituz, tailerrean adibide gisa erabilitako dokumentazioaren elementu batzuk ebaluatzea.
 - Kudeaketa Aurreratuaren Eredua erreferentziatzat hartuta, erakundearen autoebaluazioa egitea (zeregin hau derrigorrez egin beharko dute Kanpo Kontrastera aurkeztuko diren erakundeek).



• **Datak, ordutegia eta lekua:**

	1. deialdia Miribillako kiroletxea (Bizkaia)	2. deialdia Mendizorrotzako kiroletxea (Araba)
DATAK ETA ORDUTEGIAK	Maiatzak 30 (9:00-13:00) Ekainak 13 (9:00-13:00) Ekainak 27 (9:00-13:00)	Ekainak 1 (9:00-13:00) Ekainak 14 (9:00-13:00) Ekainak 29 (9:00-13:00)
LEKUA	Izen ematea: <u>sakatu hemen</u>	Izen ematea: <u>sakatu hemen</u>



g. MERKATURA ORIENTATZEA, BEZEROAK/ KIROLARIAK ERAKARTZEA ETA FIDELIZATZEA

(TAILER OSAGARRIA)

- **Egitura:** 2 saio
- **Irakaslea:** Jone Auzmendi
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Bertaratzen direnei, erakundea bezeroarengana orientatzeko tresna lagungarriak ematea, haren beharrak eta espektatibak ezagutuz eta erakundearen eta bezeroaren/erabiltzailearen arteko harremanak hobetuz.
- **Edukia:**
 - Uneko bezero eta zerbitzuen identifikaziotik abiatuta, honako hauek lantzen dira:
 - beharrak eta espektatibak.
 - erakundearen eta bezeroaren arteko informazio fluxuak; zer egiten du gure erakundeak gure bezeroei entzuteko.
 - bezeroaren gogobetetzea eta fidelizazioa erakundearekiko.
 - Bezero potentzialak eta txertatu beharreko zerbitzu berriak identifikatzen dira. Nola esploratuko dugu merkatua? Nola desberdindu gaitzke gure lehiakideengandik?
- **Zereginak:**
 - Aurrez, autoebaluazioa egitea Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera, eta "Txoko" web tresnara igotzea lehen saio presentzialaren aurretik.
 - Uneko bezeroak eta bezero potentzialak identifikatzea.
 - Uneko produktu eta zerbitzuak, eta baita potentzialak ere, identifikatzea / antolatzea.
 - Bezeroaren gogobetetzea norainokoa den jakiteko metodo bat zehaztea.
 - Zehaztutako ekintzak urteko kudeaketa planean txertatzea.
 - Adierazleen panelean adierazleak txertatzea.
- **Datak:** urtarrilak 18 eta otsailak 15
- **Lekua:** Anoetako kiroletxea (Donostia)
- **Ordutegia:** 15:00-19:00

Izen ematea: [sakatu hemen](#)



h. PERTSONEN KUDEAKETA KIROL ERAKUNDEETAN: MOTIBAZIOA, GOGOBETETZEA, ERREKONozIMENDUA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA

(TAILER OSAGARRIA)

- **Egitura:** 3 saio
- **Irakaslea:** Isabel Fernandez
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Pertsonak kudeatzeko tresna gakoan eta praktika egokien oinarriak zein diren jakitea.
 - Pertsonak kudeatzeko prozesua landu eta gauzatzea, parte hartzen duen erakunde bakoitzaren testuinguruarekin eta egoerarekin bat etorriz.
- **Edukiak:**
 - Pertsonen adierazleak.
 - Pertsonen gogobetetzea. Inkestak eta neurketak egiteko beste modu batzuk.
 - Barne komunikazioko plana.
 - Errekonozimendu sistema.
 - Pertsonak kudeatzeko prozesuaren fitxaren dokumentuak.
 - Prestakuntza plana.
- **Tailerra hasi aurretiko zereginak:**
 - Aurrez, autoebaluazioa egitea Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera, eta "Txoko" web tresnara igotzea lehen saio presentzialaren aurretik.
- **Zereginak:**
 - Pertsonen gogobetetzearen eta pertsonak kudeatzeko adierazleen neurketa landu eta martxan jartzea.
 - Komunikazio plana.
 - Zehaztutako ekintzak urteko kudeaketa planean txertatzea.
 - Adierazleen panelean adierazleak txertatzea.
- **Datak:** otsailak 1, otsailak 21 eta martxoak 3
- **Lekua:** Mendizorrotzako kiroletxea (Gasteiz)
- **Ordutegia:** 9:00 - 13:00

Izen ematea: [sakatu hemen](#)



i. (euskaraz) EUSKARAREN KUDEAKETA KIROL ERAKUNDEETAN (2 deialdi)

(TAILER OSAGARRIA)

- **Egitura:** 4 orduko saio bat
- **Irakaslea:** Bikain Idazkaritza Teknikoa
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Bikain, Eusko Jaurlaritzak ematen duen Euskararen Kalitate ziurtagiriaren berri izatea. Zer da Bikain? Zer eta nola ebaluatzen da? Zer egin behar dut Bikain ziurtagiria lortzeko?
- **Edukiak:**
 - Bikain eredia: Euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa ebaluatzeko eta ziurtatzeko.
 - Bikain ebaluazio prozesuaren ideia nagusiak.
 - Bikain Ziurtagiria lortzeko pausoak.
- **Data eta lekua:** maiatzak Mendizorrotzako kiroletxean (Vitoria-Gasteiz) eta maiatzak 23 Anoetako kiroletxean (Donostia)
- **Ordutegia:** 1. deialdia: 9:00-13:00 (Vitoria-Gasteiz)
2. deialdia: 9:30-13:30 (Donostia)

Izen ematea:

- Mendizorrotzako kiroletxea (Vitoria-Gasteiz): [Hemen](#)
- Anoetako kiroletxea (Donostia): [Hemen](#)



j. DIRUAREN KUDEAKETA KIROL ERAKUNDEETAN: DIRUZAINITZA ETA BEHARREZKO FINANTZAKETA KONTROLATZEA

(TAILER OSAGARRIA)

- **Egitura:** 2 saio
- **Irakaslea:** Daniel Ortega
- **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**
 - Kirol erakunde bati kontzeptuak eta tresnak eskaintzea modu praktiko eta errazean has dadin aurrekontu arloan diruzaintza kudeatzen, hau da, erakundearen benetako datuak izango dituen euskarri informatikoko tresna bat izan dezan, ikuspegi ekonomikotik plangintzak egiteko eta etorkizunera begirako (urtebete) erabakiak hartzeko.
- **Edukiak:**
 - Aurrekontua kudeatzea, baliabide ekonomikoak planifikatzea.
 - Eredu praktikoa.
- **Zereginak:**
 - Erakundearen datu ekonomikoak edukiko dituen euskarri informatikoko tresna bat zehaztea.
- **Ikasle bakoitzak honako hauek eraman beharko ditu ikasgelara:**
 - Ordenagailua (Excelekin).
 - Erakundearen kontuak (emaitzen kontuak eta, halakorik ezean, ohiko sarreraren eta gastuen zerrenda); bereziki, plan estrategikotik edo urteko planetik eratorritako inbertsioak eta ezohiko gastuak.
- **Datak eta lekua:** urtarrilak 26 eta otsailak 9 Miribillako kiroletxean (Bilbo).
- **Ordutegia:** 9:00 - 13:00

Izen ematea: [sakatu hemen](#)



k. (euskaraz) BERRIKUNTZA ETA GIZARTEA

(TAILER OSAGARRIA)

• **Egitura:** 2 saio

• **Irakaslea:** Aurkene Redondo

• **Tailerrak erakundeari ekarriko dizkion onurak:**

- Norberaren erakundeak gizarte-ingurunean duen eraginaz jabetu eta era berean, aztertu eta ikuskatu nola parte hartzen duen egitura sozialak lehian eta berezko entitatearen eraginkortasunean.
- Kultura berritzailea modu sistematikoan ezartzeko gakoak ezagutu eta horren inguruan estrategia identifikatu.

• **Edukiak:**

1. saioa: norberaren erakundeak gizarte-ingurunean duen eraginaz jabetu eta era berean, kultura berritzailea modu sistematikoan ezartzeko gakoak ezagutu eta horren inguruan estrategia identifikatu.

- 1. Ariketa: Autoebaluazioaren emaitzak errebisatu eta erakunde bakoitzaren erronkak ezagutu.
- GIZARTEA eta JASANGARRITASUNA, oso lotuta dauden kontzeptuak Kudeaketa Aurreratuaren arabera.
- Zeintzuk dira gure gizarte-ingurunea eratzen duten pertsona edo erakunde garrantzitsuak? Zein modutan eragiten du gure erakundeak beraiengan? Zein eragin du gure erakundeak bere jardueraren ondorioz ingurumenean?
- Aztertu emandako zerbitzuak eta ikusi ekodiseinuaren arabera ematen diren. Adibideak landu.
- Ariketa: Hemisferioak konektatzen. Berritzaileak gara? Zer da berritzaia kirol erakundeetan? Eta zer da Gizartean Berritzaia?

2. saioa:

- Egindako lanen jarraipena.
- Hauen arabera proposatuko dira bigarren saioko edukiak. Orientazio bezala:
- Ariketa: Zeintzuk dira lehenesten ditugun zerbitzu, prozesu, merkatua...? Zeintzuk dira hauekiko helburu hausleak? Estrategiarekin lotu: intentzioa, birplanteamendua eta sistematika.
- Berrikuntza sistematikorako zeintzuk gaitasun garatu behar ditugu gure erakundeetan?
- Sormena lantzeko oinarritzko tresna batzuk ezagutzuz: X-3-5, Ideia jasa, Eduard de Bonoren Pentsatzeko 6 kapel, ...



- **Zereginak:**

1. saioa: Gizartea edo Berrikuntza arloko proiektua aukeratu. Esate baterako:

- Gure lankideek eta erabiltzaileok baliabideak modu eraginkor eta jasangarrian erabiltzeko protokoloa diseinatu.
- Diseinatu ekintza plana berrikuntza prozesua ahalbidetzeko (pertsonengan edo barne-testuinguruan orokorrean).

Lana planteatzeko azken eguna: otsailaren 3a

Lana bidaltzeko azken eguna: "Txoko" web aplikaziora igo otsailaren 20a baino lehen

2. saioa:

- Lehen saioan aukeratutako lanarekin jarraitu eta hau osotu. 2. saioan emandako ekarpenak kontutan hartu.
- Zehaztutako ekintzak urteko kudeaketa planean txertatzea.
- Adierazleen panelean adierazleak txertatzea.

- **Datak eta lekua:** urtarrilak 30 eta otsailak 27 Miribillako kiroletxean (Bilbo)

- **Ordutegia:** 9:00 - 13:00

Izen ematea: [Sakatu hemen](#)



I. TAILERREN LABURPEN TAULA

2. Urtean Nahitaezkoa Estrategiaren berrikuspena eta nire kirol erakundearen urteko kudeaketa plana (urteko ekintza plana helburuekin)	1. deialdia: Datak: martxoak 14, apirilak 4, maiatzak 9, eta urriak 3 Lekua: Miribillako Kiroletxea (Bilbo) Ordutegia: 9:00 - 13:00 (azken saioa, 9:00etik 12:00era) Izen ematea: sakatu hemen
	2. deialdia: Datak: martxoak 15, apirilak 5, maiatzak 10, eta urriak 4 Lekua: Anoetako Kiroletxea (Donostia) Ordutegia: 9:30 - 13:30 (azken saioa, 9:30etik 12:30era) Izen ematea: sakatu hemen
3. Urtean Nahitaezkoa Nire kultur erakundeko jarduerak, antolaketa sistema eta adierazleak identifikatzea.	Datak: martxoak 8 eta 29, apirilak 25, maiatzak 15, eta urriak 10 Lekua: Miribillako Kiroletxea (Bilbo) Ordutegia: 9:00-13:00 Izen ematea: sakatu hemen
	Datak: martxoak 9 eta 30, apirilak 26, maiatzak 17, eta urriak 11 Lekua: Mendizorrozako Kiroletxea (Gasteiz) Ordutegia: 9:00-13:00 Izen ematea: sakatu hemen
3. Urtean Nahitaezkoa Kudeaketa Aurreratuaren Eredua. Kasu praktiko baten ebaluazioa	Datak: maiatzak 30, ekainak 13 eta ekainak 27 Lekua: Miribillako Kiroletxea (Bilbo) Ordutegia: 9:00-13:00 Izen ematea: sakatu hemen
	Datak: ekainak 1, 14 eta 29 Lekua: Mendizorrozako Kiroletxea (Gasteiz) Ordutegia: 9:00-13:00 Izen ematea: sakatu hemen
Merkatura orientatzea, bezeroak/kirolariak erakartzea eta fidelizatzea	Datak: urtarrilak 18 eta otsailak 15 Lekua: Anoetako Kiroletxea (Donostia) Ordutegia: 15:00 - 19:00 Izen ematea: sakatu hemen
Pertsonen kudeaketa kirol erakundeetan: motibazioa, gogobetetzea, errekonozimendua eta barne komunikazioa	Datak: otsailak 1 eta 21 eta martxoak 3 Lekua: Mendizorrozako Kiroletxea (Gasteiz) Ordutegia: 9:00 - 13:00 Izen ematea: sakatu hemen
Euskararen kudeaketa kirol erakundeetan	Datak/Fechas: maiatzak 22 Lekua/Lugar: Mendizorrozako Kiroletxea (Gasteiz) Ordutegia/ Horario: 9:00-13:00 Izen ematea: sakatu hemen
	Datak/Fechas: maiatzak 23 Lekua/Lugar: Anoetako Kiroletxea (Donostia) Ordutegia/ Horario: 9:30-13:30 Izen ematea: sakatu hemen
Diruaren kudeaketa kirol erakundeetan: diruzaintza eta beharrezko finantzaketa kontrolatzea	Datak: urtarrilak 26 eta otsailak 9 Lekua: Miribillako Kiroletxea (Bilbo) Ordutegia: 9:00 - 13:00 Izen ematea: sakatu hemen
Gizartea eta Berrikuntza	Datak: urtarrilak 30 eta otsailak 27 Lekua: Miribillako Kiroletxea (Bilbo) Ordutegia: 9:00 - 13:00 Izen ematea: sakatu hemen

IZEN EMATEAK



- a. 3K Programan izena ematea
- b. Tailerretan izena ematea 3K Programan parte hartu gabe



a. 3K Programan izena ematea

Programan estreinakoz parte hartu nahi duten erakundeek beren lurraldeko Foru Aldundiko Kirol Sailarekin harremanetan jarri behar dute aldez aurretik. EAeko kirol federazioek, berriz, Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzarekin jarri behar dute harremanetan. Aipatutako organo horien erantzukizuna izango da programan sartzeko izen emateak onartzea.

2. eta 3. urteko parte hartzaileak zuzenean sartu ahal izango dira; horretarako, egin nahi dituzten tailerretan izena emateko dagozkien **loturetan sakatu** beharko dute, eta urte bakoitzerako azaltzen diren argibideei jarraitu.

3K Programarako izen ematea baieztatzeko, kirol erakundeak dokumentu bat izenpetu beharko du. Dokumentu horretan jasotzen denez, erakundeak konpromisoa hartzen du 3K Programaren Eskuliburuan biltzen diren eskakizunak betetzeko.

b. Tailerretan izena ematea 3K Programan parte hartu gabe

Tailer batean edo gehiagotan izena eman nahi bai, baina 3K Programatik kanpo egon nahi duten kirol erakundeek, berriz, aukeratu duten tailerrari **dagokion loturaren bidez eman beharko dute izena**. Izena emateko inprimakian, fakturazio datuak adierazi beharko dituzte tailerraren prezioa ordaindu ahal izateko. Tailer bakoitzaren prezioa zein den jakiteko, sakatu **hemen**.

3K Programarako izen ematea baieztatzeko, kirol erakundeak **4. eranskineko** dokumentua izenpetu beharko du. Dokumentu horren arabera, erakundeak tailer bakoitzerako ezartzen diren eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du. Ondoren, Natalia Fernandezi bueltatuko zaio dokumentua izenpeturik: **nfernandez@euskalit.net**.



> **Tailerren prezioa 3K Programan PARTE HARTZEN EZ dutenentzat***

<p>ESTRATEGIAREN BERRIKUSPENA ETA NIRE KIROL ERAKUNDEAREN URTEKO KUDEAKETA PLANA (URTEKO EKINTZA PLANA, HELBURUEKIN)</p>	<p><u>Tailerri buruzko informazioa</u></p> <p>Euskaliten kolaboratzaileak: 50€ + BEZa</p> <p>Euskaliten kolaboratzaile ez direnak: 100€ + BEZa</p>
<p>NIRE KULTUR ERAKUNDEKO JARDUERAK, ANTOLAKETA SISTEMA ETA ADIERAZLEAK IDENTIFIKATZEA.</p>	<p><u>Tailerri buruzko informazioa</u></p> <p>Euskaliten kolaboratzaileak: 50€ + BEZa</p> <p>Euskaliten kolaboratzaile ez direnak: 100€ + BEZa</p>
<p>MERKATURA ORIENTATZEA, BEZEROAK/KIROLARIAK ERAKARTZEA ETA FIDELIZATZEA</p>	<p><u>Tailerri buruzko informazioa</u></p> <p>Euskaliten kolaboratzaileak: 25€ + BEZa</p> <p>Euskaliten kolaboratzaile ez direnak: 50€ + BEZa</p>
<p>PERTSONEN KUDEAKETA KIROL ERAKUNDEETAN: MOTIBAZIOA, GOGOBEKETZEA, ERREKONOSIMENDUA ETA BARNE KOMUNIKAZIOA</p>	<p><u>Tailerri buruzko informazioa</u></p> <p>Euskaliten kolaboratzaileak: 50€ + BEZa</p> <p>Euskaliten kolaboratzaile ez direnak: 100€ + BEZa</p>
<p>EUSKARAREN KUDEAKETA KIROL ERAKUNDEETAN (EUSKARAZ)</p>	<p><u>Tailerri buruzko informazioa</u></p> <p>Dohainik</p>
<p>DIRUAREN KUDEAKETA KIROL ERAKUNDEETAN: DIRUZAINZTA ETA BEHARREZKO FINANTZAKETA KONTROLATZEA</p>	<p><u>Tailerri buruzko informazioa</u></p> <p>Euskaliten kolaboratzaileak: 25€ + BEZa</p> <p>Euskaliten kolaboratzaile ez direnak: 50€ + BEZa</p>
<p>GIZARTEA ETA BERRIKUNTZA (EUSKARAZ)</p>	<p><u>Tailerri buruzko informazioa</u></p> <p>Euskaliten kolaboratzaileak: 25€ + BEZa</p> <p>Euskaliten kolaboratzaile ez direnak: 50€ + BEZa</p>

*Prezioa pertsonako

ESTEKA INTERESGARRIAK

- Euskalit
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Arabako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza